

## TOKI GARAPENERAKO BATZORDEA

### 1.- OSIÑAGA BAILARAN ZATIKETA EGITEKO BAIMEN ESKAERA. (Txos. YZ 161\_21)

2021eko ekainaren 23an, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX katastroko 5. poligonoko 63 eta 64 finketatik (Erregistroan 1497 zenbakiko finka bakarra dena) 248,53 m<sup>2</sup> zatitzeko baimena eskatu zuen. Eskariarekin batera hainbat dokumentu aurkeztu ziren.

Aztertu da udal arkitektoak egindako txostena. Txosten horretatik hau ondorioztatzen da:

- Osoko Bilkurak 2014ko irailaren 30ean (GAO 228, zkia, 2014/11/28) behin betikoz onartu zuen Udal Ordenantzen II. Liburuaren X. Titulua, hirigintza lizentziak nola eskatu, nola izapidetu eta horien exekuzioa nola kontrolatu behar den arautzen duen Ordenantza. Dokumentu horren 13. eranskinean jasotzen da "Finkak banatzeko edo elkartzeko Lizentzia-eskaerarekin batera aurkeztu beharreko dokumentazioa".
- Eskariarekin batera, besteak beste, honako dokumentuak aurkezten dira:
  1. Memoria bat non azaltzen den Katastroko 5. poligonoko 63 eta 64 partzelak erregistroko 1497 zenbakiko finka bakarra direla eta guztira 33.160,10 m<sup>2</sup> dituztela. 2004. urtean Aguas del Añarbe-Añarbeko Urak SAK (aurrerantzean AUSAK), Hernaniko Udalak eta XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXandreak akordio bat sinatu zutela bertan, Osinaga-Txabola landagunean hornidura obrak gauzatzeko okupatu behar ziren lurak okupatzeko. Lur horien jabetzaren inguruan auzi bat zegoela 2015ean Gipuzkoako Auzitegi Probintzialeko Sententziak lur horien jabetza XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX zela ebatzi zuen eta hortaz, orain, AUSAK Pardiola edateko uren banaketa-biltegiarekin behin betiko okupatutako 248,53 m<sup>2</sup> zatitzeko baimena eskatzen dela. Zatitu nahi den zatia egun dagoeneko Katastroko finka independentea da, 5. poligonoko 507 zenbakia duena eta haren mugak honakoak dira: iparraldean, ekialdean eta mendebaldean, bereizten den finka; eta hegoaldean, bide publikoa.
  2. 2020. urteko otsailaren 13ko Jabetza Erregistroko 1497 finkaren Nota Sinplea, non haren azalera 33.160,10 m<sup>2</sup>-koa dela adierazten da eta jabetza XXXXXXXXXXXXXXXXXXXX anderearena.
  3. Zatiketa eta salerosketa eskrituraren borradorearen kopia non honako zatiketa deskribatzen den:
    - Jatorrizko finka (1497 finka): 33.160, 01 m<sup>2</sup>; Mugak: iparraldean, hegoaldean eta menebaldean, bide publikoak eta ekialdean, XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXn jabetzak.
    - Zatitutako finka (finka berria): 248,53 m<sup>2</sup>; Mugak: Iparraldean, ekialdean eta mendebaldean, jatorrizko finka, hegoaldean, bide publikoa.
    - Jatorrizko finka zatiketaren ondoren (1497 finka): 32.911,48 m<sup>2</sup>; Mugak: iparraldean, bide publikoa; hegoaldean, bide publikoa eta zatitutako finka; ekialdean,XXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXXX jaunaren jabetzak; eta mendebaldean, bide publikoa.
  4. Kokapen plano, jatorrizko finkaren plano eta ondorioztatuko finkaren plano.
- Hortaz, Udal Ordenantzetan xedatutako dokumentuak aurkezten dira.

- Bestalde, Hernaniko Udalbatzak 2011ko apirilaren 11an onartu zuen Hernaniko Udal Planeamenduaren Arau Subsidiarioen Berrikuspenaren Testu Bategina (aurerantzean AASS) (GAO 90, zkia, 2011-05-13). Lurzoru ez hiritargarriko lurren zatiketa aipatu dokumentuko B.1 Hirigintza-Arau Orokorrak dokumentuko 99, artikuluko 2. puntuan arautzen da. Izaera orokorrez 30.000 m<sup>2</sup>-tik beherako finkak ezin dira zatitu eta sortuko diren finken gutxienerako azalera ez da izango 10.000 m<sup>2</sup>-koa baino txikiagoa. Baina C azpipuntuan hainbat salbuespen jasotzen dira, tartean, "Indarreko lege-xedapenetan zein hirigintza-planeamenduan ezarritako irizpide espezifikoak betetzen dituzten bananketak direnean, agiri honetako 76. eta 77. artikuluetan aurreikusitako erabilera, eraikin edo instalazioei atxikitako partzelei buruzkoak". AASSetako 76. artikuluan Herri-lanei atxikitako erabilerak arautzen dira, haien artean landa ingurunean kokatu beharreko ur-hornidurako zerbitzu-azpiegiturak.
- Aztergai den kasuan beraz, ur-hornidurako deposito bat, araudian jasotako salbuespena aplikagarria da eta proposatutako zatiketa baimenagarria.

## **Proposamena:**

### **Tokiko Gobernu Batzarrak hau erabakitzea:**

---

Hortaz, aurretik adierazitako guztia kontutan izanda, aurkeztutako dokumentuak egokiak direla eta proposatutako zatiketak indarrean den hirigintzako Udal Araudi orokorra betetzen duela, hura baimentzea, honako baldintzapean:

- 1.- Egindako banaketa jasotzen duen adierazpen-eskrituraren kopia baimendua aurkeztu beharko da udalean hilabeteko epean.
- 2.- Behean adierazitako epean (3. Atala) 229,30 euro ordaindu behar dira. Kopuru hori ateratzen da indarrean dauden ordenantza fiskalak aplikatzearen ondorioz.

1.- Segregazio lizentzia emateagatik ordaindu beharreko tasa: 229,30 €

- 3.- Ordaintzeko lekua eta epeak: Diru sarrera egiteko hilabete bat dago, jakinarazpenaren hurrengo egunetik aurrera.

Epe hori agortzen denean premiamenduzko prozedurari ekingo zaio, eta ordaindu beharreko kopuruari errekarua gaineratuko zaio.

Lekua: laguntzeko entitateetan, horretarako honekin batera ordaintzeko-gutuna ematen da. Hirigintza lizentzia emateagatik ordaindu beharreko tasa ordaindu behar da, eta eraikin, instalazio eta obren gaineko zerga ere bai.

---